

Irailaren 21ean hasiko dira eskolak 2. 3. eta 4. mailetan

2009/09/02

Irailaren 1ean ireki zituen atea Huhezi fakultateak, asteartean. Langile guztiak fakultatean daude, eta **fakultateko departamendu guztiek lanean dihardute**. Hala ere, oraindik ikasle gutxi dabil bazterretan, soilik 1. mailakoak hasi baitira.

Graduko ikasketak

Graduei dagokienez, **1. mailako ikasle guztiak**, bai Irakasle ikasketetan eta baita Ikus-entzunezko komunikazioan, **irailaren 14an hasi dira eskoletan**. Espezialitateei dagokienez, eskolak egun hauetan hasiko dira:

Haur Hezkuntza

- 1. mailakoak: irailaren 14an, arratsaldeko 13:30ean
- 2. eta 3. mailakoak: irailaren 21ean, goizean. Aurkezpen bat egingo da, eta ondoren eskolak hasiko dira. Ordu-tegiak aurkezpenetan banatuko dira:
 - 2.maila: goizeko 09:00etan.
 - 3.maila: goizeko 10:00etan

Lehen Hezkuntza

- 1. mailakoak: irailaren 14an, arratsaldeko 13:30ean.
 - 2. eta 3. mailakoak: irailaren 21ean, goizean: Aurkezpen bat egingo da, eta ondoren eskolak hasiko dira. Ordu-tegiak aurkezpenetan banatuko dira:
 - 2.maila: goizeko 09:00etan.
 - 3.maila: goizeko 10:00etan

Ikus-entzunezko Komunikazioa

- 1. mailakoak: irailaren 14an, arratsaldeko 13:30ean.
- 2., 3. eta 4. mailakoak eta Lizentzia Bikoitzeoak: irailaren 21ean, arratsaldeko 13:30ean. Denak aretoan bilduko dira, ongi etorria jasotzera. Ondoren, ikasgelara joango dira, lanean hastera.

Gradu-ondoko ikasketak

Gradu-ondoko ikasketen artean, ikasturte honetan ikastaro bat eskainiko da: Derrigorrezko 2. Hezkuntzako Master Ofiziala, eta irailaren bukaeran hasiko da.

Bigarren diploma

Irakasle ikasketen barruan Bigarren diploma aukeratu dutenek, berriz, hasiera-data hauek izango dituzte:

- 1. mailakoak: irailaren 22an.
- 2. mailakoak: irailaren 7an.

